

Barberenak Andoaingo herriaren eta kirol taldeen omenaldia jaso zuen

Andoaingo Txirrindulari Eskolan bere jaiotzatik egindako lana azpimarratu dute herriko kirol elkarteetako eragileek.

Taldeakideak eta txirrindulari gazteak, adiskideak, Andoaingo kirol eragileak..., jende asko bertaratu zen Basterora. Barberena oso pertsona maitatua da Andoainen, eta ez zuten omenaldi ekitaldira hutsik egin. Omenduaren meritua aipagai izan ziren ekitaldiaren hasieran: "Txirrindularitza eskola 1984an sortu zenetik Joxe Barberenak egundoko dedikazioa eskai-



Andoaingo Txirrindulari Eskolako Joxe Barberenak ohorezko aipamena jaso zuen.

ni dio berari, denbora lapurtuz familiari, ogibideari eta aisialdiari; betiere helburuak zein ziren argi edukita: hurrei txirrindularitza praktikatzeko aukera ematea, eta horrekin batera, pertsona bezala garatzen laguntzea. Ordutik, herriko ehunka gazte igaro dira eskolatik. Gogoko duten kirolean jardun dute, eta batez ere, edozein kirolean ezinbestekoak diren ezaugarriak, hots, bizitzan baliagarri diren hainbat balio transmititu zaizkie; hala nola, ahalegina, sakrifizioa, diziplina, elkartasuna, elkarlana...".

Bi bideo ezberdinen bitartez eskolaren ibilbidea eta kirol eragileen aitortza erakutsi zituzten.

[ANDOAIN, 10.ORRIALDEA]



Andoainen rock musika eta garagardoa

[ANDOAIN, 5.ORRIALDEA]

Kirol Astea



Hitzordu ugari antolatuta ditu Allurralde kirol patronatuak, tartean mahai-ingurua.

[KIROLAK, 11.ORRIALDEA]

Gaztañaga sagardotegiak irabazi du Gipuzkoako XII. Sagardo lehiaketa



Ekainaren 8an sei finalisten artean onena erabaki zuten.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza, Landa Garapena eta Turismoa sailak antolatzen duen sagardo lehiaketaren lehen saria Andoainera ekarri du Gaztañaga sagardotegiak. Ostiral goizean hartu zuten erabaki hori. Hona epaimahaiaren erabakia:

1. Gaztañaga 77 puntu
2. Altzueta 73,5 puntu
3. Gartziategi 73 puntu

Hogeita hamar sagardogile aurkeztu dira lehiaketara, Gipuzkoak hamalau herritakoak. Aldundiak antolatzen duen lehiaketaren helburuak hauek dira: sagardogilearen elaborazio lana baloratzea eta botilaratutako sagardoaren kalitatea ikuspegi organoleptikotik eta analitikotik saritzea.

Harrobiko lanaren fruituak



Urnietako alebin mailako neskek Gipuzkoako txapelketa irabazi dute. Zorionak!

[KIROLAK, 11.ORRIALDEA]



Ehunka urnietar eta andoaindar ekainaren 8ko giza-katean

Gehigarri berezia, erdiko orrialdeetan:

- Argazkiak.
- Antolatzaileen esker ona.
- Iritzia.



Ehoziri erakustaldia eta artisau azoka Kale Nagusian



Salkinek erakustaldia eta artisau azoka antolatu zuen.

Salkin merkatarien elkarteak ehoziri erakustaldiaren edizio berria antolatu zuen, eta horrekin batera herriko artisauei postua ipintzeko aukera eskaini zien.

Aurreko larunbat goizeko giroa osatzeko baliagarria izan zen Salkinen ekimena. Merkatari elkarteak bere aldetik Santa Krutz Peñari esker ona adierazi nahi dio, ekitaldia antolatzeko emanadako laguntza guztiagatik.



Autoenplegua aztergai bi ikastaroetan

Ekintzaileentzako ikastaroak eskainiko dituzte datorren astean Andoainen eta Lasarte-Orian. Lanbidek Autoenpleguaren inguruko ikastaro berriak jarri ditu martxan, eta doako bi ikastaro antolatu ditu datorren asterako.

Batetik, autoenplegura zuzendutako tailerrak antolatu ditu Andoainen, lanean beraien kontura hasi nahi duten ekintzaileei zuzenduta. Trebakuntza tailerrak ekainaren 18, 19 eta 20an egingo dira Opuera eraikinean, 09:00tatik 13:00tara. Hiru saio hauetan ekintzaileen proiektu profesionala eta

profila, negozio ideia eta merkatu potentziala landuko dira.

Bestetik, enpresa propioa nola sortu eta nola kudeatu azalduko duen ikastaroa antolatu dute Lasarten. Ekainaren 19 eta 20an izango da Villa Mirentxun eta bi talde egingo dituzte, goizez eta arratsaldez (09:00-13:00 eta 15:00-19:00).

Tailer hauen inguruko informazio gehiago nahi izanez gero, Lanbideren bulegoetara edo nerea Yurrebasorengana jo dezakezue; ekinean@andoain.org edo 943 304 221 telefono zenbakira.

Ikasturte amaierako jaia



Ikasturte amaierako jaiarekin egun pasa ederra igaro zuten Ondarreta ikastetxe haur eta gurasoek. Argazki gehiago, Aiurrik Flickr atarian duen gunean.

“Andoain aurrera” foroan parte hartu zuen, ekainaren 6an

Arantza Tapia Jaurlaritzako sailburua Andoainen

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Garapen eta Lehiakortasun sailburu Arantza Tapiak hitzaldia eskaini zuen Basteron, Andoaingo EAJ-PNVk sustatzen duen “Andoain aurrera” foroan. Deialdiak ikusle ugari erakarri zuen, zeinean sailburuak krisi ekonomikoetik ateratzeko gobernutik bultzatzen ari diren eredu ekonomikoa defendatu zuen.

Egungo gobernuak egoera benetan zaila aurkitu zuela gogorarazi zuen, ezer baino lehen. Atzeraldi ekonomikoa bete-betean, Jaurlaritzaren aurrekontua %11 murriztu zuten, “mila milioi euroko barne murrizketa, aurrekaririk gabeko egoera konplexuari aurre eginenez”. Zailtasunak zailtasun, egoera gaintzen ari direla adierazi zuen. “Hazkunde jasangarrirako estrategia” tzat definitu zuen Jaurlaritzaren kudeaketa. “Enpleguaren Aldeko Plana” martxan jarri zutela, eta beste hainbat plan gehiago: “Inbertsio Plana, Nazioartekotzerako Basque Country Programa; Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Kontseilua eta Industrializazio Plana”, etab.



Arantza Tapia Sailburua eta Mari Jose Eizagirre zinegotzia.

Azken horretarako 575 milioi euroko partida adostu dutela iragarri zuen, “birsortze industrial berria” lortzeko asmoz. “Helburua enpresei hazten laguntzea da; hori delako, hain zu-

zen ere, Euskadiren hazkundearen bidea”. Bestalde, poza agertu zuen “hamarkada askoren ondoren, lehen aldiz, errekupeazio ekonomikoa eta bakea eta bizikidetzat batera doazelako”.



Ikusle ugari izan zituen aurrean Arantza Tapia Sailburuak.

1949an jaiotakoek bazkari jendetsua egin zuten Oianumen

Bizipoza 65 urtera iritsita



Urtean zehar 65 urte beteko dituzte argazkian agertzen direnek. Urte berean jaio izanak bazkaria egiteko bidea eman zion andoaindar talde honi. Taldeko argazkia atera ondoren Oianumen bazkaria egin zuten.

Igerilekua asteburu honetan zabalduko dute



Ekainaren 14tik irailaren 14ra arte zabalik izango da igerilekua.

Udaren etorrera ondoen adierazten duen albiste

da. Larunbat honetan zabalduko dute, datorren irailaren 14ra arte.

Antzerkizaleen saioa, ospakizun bilakatuta

Urnietako Udala antzokiko tailerreko parte-hartzaileak ikasturte amaierako ikuskizuna prestatzen ari dira, "2013-2014 ikasturte honetan zehar ikasi, partekatu eta barneratutako guztiaren amaiera-ekitaldi gisa". Emanaldi horretan bost esketx ikusi ahal izango dira: "La cita", "Autobusa", "Harrikada", "Ay hombres" eta "Carrocería VS". Ikuskizun

eternaldia egingo dute freskagarriren bat edateko, eta tar-

te horretan sorpresa iragarri dute.

Antzezlana amaituta, hitzorduari jarraipena emango diote DJ Katxorrekin.

Sarrera 3 eurokoa da. Eskuragarri egongo dira leihatilari ordu bete lehenago, aretoa bete arte.

19:00. Sarobe. 3 euro.
Ekainak 15, igandea.

Udako oporraldien gaineko aholkuak Gaztegunean

Udako oporraldia prestatzen ari diren gazteei Gazteguneko jakinarazi nahi die lagun-

tza zerbitzua zabalik duela Idiazabal kaleko 13. zenbakian (10:30-13:30).

Barberena, onenen artean



Barberena hirugarren postuan iritsi zen helmugara, 5.000 metroko lasterketan.

Aurreko asteburuan betaranoen mailako Euskadiko pista txapelketa ospatu zen Gasteizen. Bertan, eta azken deialdien antzera, **Xabier Barberena** eta **Txelu Del Sol** urnietarrek hartu zuten parte. Oraingoan 5.000 metroko

lasterketan. Bero handiaren lehiatu ziren, eta biak ere ez zuten bere egunik onena izan. Dena den, **Xabier Barberena** hirugarren postuan iritsi zen helmugara, Euskadiko brontzeko domina lortuz. Zorionak!

Urnietako Udalarari hainbat eskaera bideratu dizkiote

Ikasleak zinegotzi lanetan

Presentación de Maria, Egape LH, Egape DBH eta Salesiarrak ikastetxeetako ikasleen artean, ia mila inguru, mugikortasuna hizpide izan dute ikasturte osoan Eskola Agenda 21 egitasmoaren barruan. Ikasturtean ikasitakoa azaldu eta, urtero bezala, ondorioak atera eta Udalarari proposamenak egiteko ez ohiko batzarraldia egin zuten ekainaren 4an. Zinegotziak esertzen diren aukietan ikasleak eseri ziren eta haiei adi-adi begira egon ziren ikaskideak eta baita alkatea eta zenbait zinegotzi ere.

Ikasleek ikastetxean, herrian eta inguruan mugikortasuna aztertu dute, "guk ere jarrera desegokiak ditugula ondorioztatu dugu". Eta hainbat konpromiso hartu dituzte mugikortasuna hobetzeko. Besteak beste, herrian zehar oinez gehiago



Ikasleek ikastetxean, herrian eta inguruan mugikortasuna aztertu dute.

mugitzea, haur txikiagoen eredu izatea, seinaleak errespetatzea eta garraio publikoa gehiago erabiltzea.

ESKAERAK

Urnietako Udalarari hainbat eskaera bideratu dizkiote: bidegorriak jartzea, autobus geltokietan informazio panelak jar-

tzea, herriko puntu jakin batzuetan espaloiak zabaltzea, zebrabideren bat tokiz mugitzea, ikastetxeen inguruan seinalizazioak jartzea eta gune peatonal gehiago jartzea.

Alkateak eta zinegotziek eskaerak kontuan hartu eta egingadako lanetatik ikasleak zorriondu ziztuzten.

EMAKUMEEN BIZITZA HOBETZEAREN GAINEAN ENTITATE PRIBATUEK EZ DUTE ERANTZUKIZUNA BEREGANATU BEHARKO DUTE.

* Onartzea 2013ko uztailaren 17ko 4/2013 Foru Araua, Foru Sektorre Publikoko obra kontratuetan klausula sozialak sartzei buruzkoa. Hor zehazten da berdintasuneko hainbat plan lantzeko eskakizuna, honelako alderdiak jasoko dituztenak: lan baldintzak hobetzea, sektore maskulinizatuaren emakumeak kontratatzea, bateragarritasuna eta ardura partekatua sustatzea, indarkeria matxistaren arloan prebenitzea eta esku hartzea, eta abar.

** Sozietateen mozkinen gaineko zergaren aurreproiektuan, berdintasun arloko zerga pizgarriak lehenesteko proposamena, alderdi hauek kontuan hartuta: emakumeen enplegu mugagabearen sorrera eta emakumeen lan baldintzen hobekuntza; ardura partekatua, eta bizitza pertsonalaren, familia bizitzaren eta lan bizitzaren bateragarritasuna; jarrera sexistaren gaineko prebentzioa eta jazarpen sexistaren gaineko esku-hartzea; eta abar.

*** 2013an, bikoiztu egin dira berdintasun klausulen kopurua, eta halakoak jasotzen dituzten kontratazio espedienteen kopurua ere bai: lehen, 32 kontratu ziren -13,7 milioi euro, guztira-, eta orain, berri, 71 kontratu -26,9 milioi euro, guztira-.

**** 2013an, ugalduta egin dira berdintasun klausulak, baita halako klausulak jasotzen dituzten diru laguntza deialdiak ere.



IÑAKI ARANZADI • URNIETA

Piriniotan xixak biltzen ikasi nuena

A tzerritarren aurrean geure akatsak ateratzea gaizki dagoela dirudi, gure akatsak ezkutatu eta alderdi onak azaldu, aurpegiratu behar ditugula dirudi, baina geure aurrean gerana eta geran bezala azaldu behar dugu; bere herria maite duena ez da itxurakeriatan ibiltzen bere akatsak ezkutatu eta faltsukeria gainerratzuz, geran bezala azalduaz baik.

Gure harremanak gozoak, eroasoak izan daitezten zailtasun handiak ditugu, eztabaidak konpontzen asko kostatzen zaigu; hitz erdi batekin betirako haserretzen gera, huskeria bat nahikoa da atzeko aurrera trabatuta gelditzeko, hitz lagunak erabiltzen ez genuen ikasi. Perlesiak jotako mingaina dugu, isilik aguantatzea ikasi degu, gure ertzak leuntzen ez genuen ikasi, gogoan hartzen bai, ez ahazten bai, barkazioa hitza aspaldi desagertu zen guregandik, eta jokabide horiek gure aurrekoengandik gizaldiz gizaldi hartuak ditugu, horregatik egiten zaigu gaur hain zail tirabirak konpontzea. Hau dena hobeto ulertzeko adibide bat doakizu:

Behin batean berrogei bat gazterekin irteera bat egin genuen Piriniotan. Bidean gindoazela, tupustean, xixa larre bat aurkitu nuen, dozena pare bat xixa zituena. Besteak pasa ziren eta bat, onbeharrez, laguntzera etorri zitzaidan, eta xixa bat eskutan hartu eta ekarri zidan, baina tamalez nik eginda neukan xixa piloa bere hanka

“Akatsak izatea eguneroko ogia bezala da, hain ugariak... Baina barkazioa eskatzea hain eskas, hain garestia!”

batez zapaldu zuen... Beroaldi hartan esan nizkion: burugabea, despistatua, ajolagabea... Handik laster jabetu nintzen gaizki esandako hitzak zirela. Desafio bat bezala azaldu zitzaidan auzi hura konpondu behar nuela; berak xixa ekartzearan intentzio txarrak ez zuela, niri laguntzea baizik eta esan nizkion hitzak gaizki esanak zirela eta ez egiak. Bera ez zala arduragabea, bera ez zala txarra, bere intentzio ona nabarmendu.

Bide bat bazegoen helmugarako eta bitartean hausnarrean joan nintzen zein injusto izan nintzen jokabide horretan. Nola esan, zer esan, ez nuen uste hainbeste kostako zitzaidanik hitz horiek bukatzea; perlesiak jota bezala neukan abilezia hori, gutxi egin, noski. Iritsi naiz helmugara eta bazkaltzen hasiak ziran. Deitu nion eta erantzun zidan distraituta zegoela eta uzteko. Eskerrak nire buruari desafio bat egin nion, etsiko nuen bestela. Gero deitu nion eta etorri eta esan nizkion nire hitzak barkazioa eskatuz. Eta berak erantzun: “Lasai Iñaki, ez da ezer”.

Gero jabetu naiz zein gutxitan barkazioa eskatu ziguten gure maisuek, zein gutxi gure apaizek. Akatsak izatea eguneroko ogia bezala da, hain ugariak... Baina barkazioa eskatzea hain eskas, hain garestia! Gure etxeetan zein gutxi esaten dan “barkatu”. Zein zaila den gure harremanetan barkazioa eskatzea. Nahiago dugu bizitza osoan haserretuta egotea une batean hori konpontzea baino. Gure haurrek ikusiko balute zein ongaria den eztabaidak konpontzea hitz eginez, zein bide egokia dan hori, ez litzaieke hainbeste kostako.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

HITZ-GEZIDUNAK

* Asteasuko Emakume Taldeko kidea

		Andaluziako hiria	Lemari	Loka
		Triangeluaren alde	Tunisiako hiriburua	Penagarri
* DEITURA				
Korronte sorgailu				
Agintza, zina	Ebazpena	Pl., perretxi-ko mota		
Sabela	* IZENA	Zurezko ontzia		
		Aretoa		
		Bokala		
Aitarena anaia		Ligaren erdian		Aholegarra
Emakume izena		Zangoaren atala		
		Zintzoak		
		Selenioa balio du		
Lapurtu, ostu			Nori atzizkia	
Bete			Bokalik gabeko ataria	
		Erdigune		
		Bokala		
Aldrebesa			Nafarroako udalerria, Aezkoan	

HITZ GURUTZATUAK

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									

EZKER ESQUIN: 1.- Neurrigabe. 2.- Kontsonantea. Ez dira kontsonanteak. 3.- Kanpo, landa. Zer tokitarako? 4.- Informazio unitate. Beira, kristala. 5.- Alderantziz, udalerrir lapurtarra. Okzitaniako udalerria. 6.- Luzera eta zabalera baino altuera txikiagoko. Barrea adierazteko. 7.- Nolabait. kripton balio du. 8.- Aipatua, adierazia. Bokala. 9.- Higuindua.

GOITIK BEHERA: 1.- ... atera, irabaziak izan. 2.- Kontsonantea. Tiranokeria. 3.- Lehen biak. Bizkaieraz, zipotz, tapoi. 4.- behialako piraten gustuko edari bizi. Aretokak. 5.- Uzkur, barne hutseko. Teilatuko ohol. 6.- Nafarroako udalerria, Izarbebarren. Tente. 7.- Atseginak. Urrearen ikur kimikoa. 8.- Ez dira ugariak. Bokala. 9.- Arabako herri batekoak.

GOITIK BEHERA

Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharrekoak

1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									

1. Landare loreduena. 2. Ordokia, eremu laua. 3. Kermen. 4. Mahats zuku. 5. Joaki da. 6. Diosal hitz. 7. Estatu Batuetako estatua, hiriburutzat Boise duena. 8. Tutuak. 9. Ur tanta gutziz txikiez osatutako multzoak.

ERANTZUNAK

Orkidea. Ordoka. Adore. Ardo. Doa. Adio. Idaho. Hodriak. Hodelak.

5. Ikol. Lata. 6. Gares. Zut. 7. Alaiak. Au. 8. Bakanak. A. 9. Ekorrak.

GOITIK BEHERA: 1. Irabazian. 2. Z. Triantia. 3. Ab. Tapotz. 4. Ron. Salak.

EZKER ESQUIN: 1. Izangabe. 2. R. Bokalak. 3. At. Norako. 4. Bit. Leiar.

K	O	L	A	M	O	A	K	A	R	I	A
L	E	T	A	L	A	I	G	N	A	R	I
C	A	T	D	U	N	A	S	A	O	N	A
K	D	I	N	Z	I	Z	A	B	A	T	S
E	P	A	B	A	I	A	A	E	B	A	T
T	R	I	P	A	S	A	L	A	A	L	A

Gure Esku Dago giza-katea ez dute berehalakoan ahaztuko

Gehigarri berezia
Aurri astekaria
2014ko ekaina





Ehunka andoaindar Irurtzun aldean

ANDOAINDARREK EHUN ETA HIRUGARREN KILOMETROA BETE ZUTEN ESKUZ ESKU, MILATIK GORAKO PARTE HARTZEAREKIN. AZKEN HIRU EGUNETAN PARTE HARTZAILEEN ZERRENDA BIDERKATU EGIN ZEN, EKIMENARI ERANTZUN BIKAINA EMANEZ.

Seirehun herritar bilduta, Andoaingo Gure Esku Dago ekimenaren termometroak goia joko zuen. Horixe uler zitekeen Kale Berrian eta Santa Krutz elizaren ondoan apirilean jarri zituzten termometro itxurako afitxetan. Helburua 600. zenbakian ipinita zegoen. Inguruko hainbat herrirekin alderatuta, mantsoago joan da Andoainen giza katean parte hartzeko herritarren izen-ematea. Aleka batzuk ziren hasieran, dozenaka ondoren. Termometroa, udaberriak aurrera egin ahala, berotzen hasi zen. Santakruzak igarota, hozberoa gorrirako bide

zuzena hartu zuen. Eta azkenerako termometroa lehertu egin zen. Euskal Herriko datu osoen aurreikuspenak gainditu ziren bezalaxe, Andoaingoak ere modu beretsuan gainditu dira. Giza-katerako, giza olatua esnatu egin zen bat batean. Azken 72 ordutan ordura arte erantzunik eman gabeko andoaindarrek ekimenarekin bat egin zuten. Akabo parte hartzeari buruzko kezka. Bestelakoak sortu ziren orduan, gehiegizko kopurua Irurtzun aldera eramateko kezka. Azkenean ehunka lagun busean joan zen, eta gainerakoak kotxeetan.

ESKERTZA

Andoaingo Gure Esku Dago

Zorionak eta mila esker Andoain! "Gure esku dago" giza-katea Andoainen antolatu duen batzordeak Andoaingo herritarrak zoriondu nahi ditu ekainaren 8an izandako arrakastagatik. Andoaini zegokion kilometroan, 103 kilometroan, 995 lagunek katea osatzea lortu genuen, beraz andoaindar ugarik jarri du bere hondar alea erabakitzeko eskubidearen alde.

Bestalde, nola ez, gurekin eskuz esku kanpaina honetan euren laguntza eskaini diguten denda eta tabernak eskertu nahi ditugu. Izan metroen salmentan, izan autobuserako txartelen salmentan, euren laguntzarik gabe ezinezkoa izango zitzaigukeen ekimen hau behar bezala antolatzea.

Beraz bihoakie gure eskerrik beroena Keinu arropa dendari, Ernaitza liburudendari, Xaxi eta Lanbroa tabernei, Li arropa dendari, Ikelatz mertzeriari, Urrats inprimategiari eta Aralai dendari.



Urpa eta Izaskun konpainiatako autobusetan mila pertsona abiatu ziren igandean Irurtzun aldera.



Busetik jaitsi eta herrigunerako bidea kalejiran egin zuten Ane Amuxastegi eta Elixane Jauregirekin.



Gure Esku Dago Andoain ekimeneko antolatzaile taldeko hiru kide, Irurtzungo kanpoaldean.



Ehun eta hirugarrena, ehunka andoaindarrek berehalakoan ahaztuko ez duten kilometroa.



Irurtzun herriaren atarian giza katea noiz hasiko zain zegoen argazkiko koadrila.



Ana Carrere Andoaingo alkateak etxeokokin eta lagunekin hartu zuen parte giza-katean.



Aurrera eta atzera, eskuak gora eta behera, olatua eginez..., giro ederrean aritu ziren Andoaindik joandakoak.



Etxeberrietan eta Zumea plaza inguruko herritarrek, giza-katearen atarian.



Burdina taldeko kideek giza kateari atxikimendua adierazi zioten.



Antolatzaileen aginduei men eginez, aulkiak eramane zituzten itxaronaldia eroso egiteko. Zatoa eramatea ez zeterren antolatzaileen gidan, baina ez zen batere ideia txarra izan.



Zanpantzarrei lehenik eta giza-katearen amaieran, parte hartzaileek txalo egin zuten gogotik.

Rosa, Izaro, Omar, Arane, Carlos, Maddi..

GURE ESKU DAGO KANTUAK EZIN HOBEBE AURREIKUSI ZUEN IGANDEKO PARTE HARTZEA ZABALA. "HIRITAR DESBERDINAK AMETSAK DITU BILTZEN: ETORKIN, ARRANTZALE, LANGABETU, IKASLE, NEKAZARI, LANGILE, MUSIKARI, IDAZLE, ERRETIRATU, UME".



Aihotz Albisu Lasa eta bere familia giro ederrean, urnietarren artean egindako giza-katean.



Bertsotan aritu zen taldetxoa, irudian.



Giza-kateko kideek harriduraz hartu zuten Guardia Zibila. Gutxira, bizkarra ematea erabaki zuten ia denek.



Ospakizuna izan zen igandekoa, bertan izan zirenek nekez ahaztuko dutena.



#103KM #ANDOAIN #GUREESKUDAGO



#58KM #AIZTONDO #GUREESKUDAGO



#102KM #URNIETA #GUREESKUDAGO

Aiurri

ESKUALDEKO NORTASUN HITZAK





Herriko zanpantzar eta pertsonaia mitologikoen kalejira ezusteko atsegina izan zen Andoaindik eta Urnietatik joandakoentzat. Bi kilometroetan zehar, ateratzen zuten soinuarekin, herritarrek txalo zaparradarekin erantzun zieten.



INDARRA

Andoni Urbistondo # Urnieta

Ez dakit noiz izan zen. Baina lerroburuarekin gogoratzen naiz. "Indarra!". Hitz hori aukeratu nuen Berria-n euskal mendizale talde batek Everestera Hornbein korridoretik igotzeko erronka zuen espedizioa azaltzeko. 3.000 metroko elur eta izotz horma ia perfektua, munduko gailur garaie-

"1.150 lagun gure kilometroan. Kolore guztietakoak. Pentsaera anitzekoak. Baita euskal ez abertzaleak ere"

nera heltzeko. Indarra sentitu nuen Gure Esku Dago ekimenaren asmoen berri izan nuenean. Abestia eta bideoa entzun nituenean. Bideoaren hasieran Urnieta eta Adarramendi azaltzen zirela ikustean. Herrian ekimenari bultzada emateko talde anitz eta aberatsa sortu zenean. Eta ekainaren 8an zer? Ikaragarria. Eta ekainaren 8ko gauean? ETBko irudiak ikusten? Malko zorian.

Adinean gora joandako aiton-amon adoretzuak hunkituta, haur, gazte, heldu, emakume, gizon, ikurrina, Nafarroako ikurra eta Gure Esku Dagoren leloa eta kamisetak soinean. Indarra hitza etorri zitzaidan burura, eta honatx nire

hausnarketatxoa. Urnietak beti izan du militantzia gutxiko herriaren sona, baina igandean lau autobus lepo bete ziren, eta autoetan ere jende asko bertaratu zen/ginen Irurtzunera, 102. kilometrora. Eta han? Giro lasaia hasieran, baina 11:00tarako bero latza zerutik behera, eta lurretik zerura. Jende oldea, denak alai, denak mugitzeko gogoarekin, munduari zer nahi dugun erakusteko gertu: argazkiak, kamara daraman motorrari adi, Apalantzaren helikopteroaren kolorea, zanpantzarrei txalo zaparrada handia... 1.150 lagun gure kilometroan Astigarraga, Goizueta eta Aranoko herriki-deak lagun genituela. Kolore guztietakoak. Pentsaera anitzekoak. Baita euskal ez abertzaleak ere.

Indarra erakutsi du Euskal Herriak. Euskal jendarteari. Gai dela esan. Dagoion eskubide bat lortzeko pauso itzela eman du. Eskubidearen aurretik

legea jartzen duenari indarra dugula esan diogu, ulertu edo ikusi nahi ez duten indarra... Indarra bihotzean, indarra buruan. Indarra guk geuk erabakitzeko. Gure eskubidea delako. Milaka lagun igo dira Everestera. Gutxi batzuk Hornbein korridoretik (zazpi espedizio). Euskal Herria Hornbein korridorea gaingituzeko bidean da, igandeko erakustaldiarekin.

Ehunka, milaka txiok bete zuten sarea igande arratsean. Txio zaleak seko harrituta, orokorrean, baina pozik, egin eta ikusitakoarekin. Pertza horretatik, erreflexio hunkigarri honekin bukatu nahi nuke: "Nire aurreko belaunaldien jaiotetxe aurrean ikusi dut, agian hil aurretik independentzia ikus dezakegula. Aurrekoak gogoan, negar egin dut" (Joxe Mari Apaolaza, Euskadi Irratiko esataria). Egin negar, baina egin indar. Gure Esku Dago, gure eskubidea da!



Buruntzantzian batukada taldeak eguerdiko hamabiak bitarteko tartea baliatu zuen erritmo dantzagarriak eskaintzeko. Aiurrik jasotako bideoa internet bidez zabaldu eta berehala bisitaldi ugari jaso zuen.

Urnietarren ospakizuna bide bazterrean

HIRUREHUN LAGUN INGURU ABIATU ZEN URNIETATIK IRURTZUN ALDERA, GIZA KATEAREN EHUN ETA BIGARREN KILOMETROA OSATZERA. GEHIENAK AUTOBUSEZ, ETA BESTE ZENBAIT IBILGAILUA HARTUTA.

Goizeko zortzirik baino lehen Idiazabal kalean lagun taldeak ikusten ziren, asko eta asko zeru koloreko elastikoa jantzita. Zerua garbi, egun ederra aurreikus zitekeen. Orduak aurrera egin ahala, eguraldia bezain-beste berotu zen giroa Irurtzun herriguntetik gertuko bide bazterrean. Egun gogoangarria izan zen, ahazten ez den horietakoa. Eskuz esku lotuta, Durangotik zetorren giza-katea Iruñerantz zihoan. Eta konexio hori ziurtatzeko, urnietar askoren eskuak.

ESKERTZA

Urnietako Gure Esku Dago

Ez dugu berehalakoan ahaztuko igandean urnietar askorekin batera bizitakoa. Urnietan aspaldi ekin genion lanari, metroak salduz eta ekitaldi osagarriak antolatuz. Ekainaren 8koa, aldiz, betiko gogoan izango dugun egun horietakoa da. Eguzkiak gogor jo zuen eta aukeran itzal gutxi. Eta, hala ere, hara joandakoen jokabidea miresgarria izan zen.

Azken hilabete luzeetan lanean jardun dugu bai, baina guk bakarrik ez. Eta hori dela eta lerro hauen bidez urnietar askoren laguntza eskertu nahiko genuke. Hasteko, esker mila 260 urnietar horiei, metroa erosiz eta beren presentziarekin ekimenari zentzu osoa eman ziotelako.

Itzalean lan bikaina egin dute hainbat merkatarik, eta horiek ahaztea barka ezina litzateke: Amailur, Kantoi, Muazpi, Trazos, Xauxar, Joxan Altuna, On Bizi elkarte...

Urnietar askok bat egin dute ekimen ezberdinetan: antzezleak, musikariak, bertsolariak, batukadakoak...., Bidegintzan aipamen berezia merezi dute Juntxo Sardonek eta Jon Gorospek.

Giza kate erraldoiaren aurreko astean Galarretan jaialdia antolatu zuten eta Batzokiko kideek bazkari ederra eskaini zieten Tarragonatik etorritako casteller taldeko partaideei. Haiei ere, mila esker. Eta baita Urnietako Udalarik, bilerak egiteko tokia utzi izanagatik. **Zorionak eta mila esker, Urnieta.**



Gorospa, Vaquero, ... Urnietako Gure Esku Dago ekimenean lanean aritu diren urnietarrak. Pozarren zeuden.



Gazte eta heldu, denak ere giza katean. Tartean makina lan egin zuen Mikel Izagirre, alkate ohia.



Bero ikaragarriarekin alai eutsi zioten itxaronaldiari. Tartean kanpainan lanean aritu zen Urbistondo.



102. kilometroa urnietarra izan zen. Eta haiekin batera Arano, Goizueta eta Astigarragako kideak.



Mikel Pagola Urnietako alkateak etxeokoen eta lagunekin hartu zuen parte giza katean.



Adin guztietako urnietarrak bildu ziren bide bazterrean. Tartean, Independentistak zapiarekin, Teresa Toda.



Festa giroan igaro zen giza kateak iraun zuen ordu erdia. Olatua eginez eta bestelako dibertimenduekin eman zuten eguerdiko hamabiak bitarteko itxaronaldia. "Jende zorionsua", kantuan aipatzen den bezala.



Eskua zabalik harro erakusten zuen koadrila gaztea, itzalik gabeko eremuan.



Gazteen parte hartze eskasa aurreikusten zutenei ez zuten asmatu. Gazte koadrila asko hurbildu zen.



Udako giroan, giza-kateari hasiera emateko gogoz zegoen koadrila. Tartean Iban Estebez kirolaria.



Buruntzantzán batukada taldekoak giza katea hasteko gogoz. Tartean, ekimenaren alde lanean aritu diren Rosa Sanchez eta Juankar Erasun.

Aiurrizaleekin osatutako argazki bilduma


HERRITARRAK IZAN ZIREN LEKUKOTZA EMATEN LEHENAK. TEKNOLOGIA BERRIAK ERABILIZ, DOZENATIK GORA AIURRIZALEK ARGAZKIAK ETA BIDEOAK IGORRI ZITUZTEN AIURRIKO ERREDAKZIORA. HAIENA IZAN ZEN SARERATUTAKO LEHEN ARGAZKI-BILDUMA.



Ehunka herritar bildu zen goizeko lehen orduan Makaldegian.



Autobusen azpiegitura ikusgarria, airetik hartutako irudian.



Bidaian zehar argazkien bitartez ikus zitekeen bidaiarien aldatzea.



Goizeko zortzirak inguru horretan urnietar koadrilak giza katerako prest ikus zitezkeen.




Urnietatik iritsi zen lehen autobusa, horixe jakinarazi zuen argazkiaren igorleak.



Haurrak eroso eta itzalean egoteko azpiegitura ona egokitu zuten.



Argazkia bidaltzen zuen segapotoa bero-bero zegoen.



SuperH elkartasun ekimena Irurtzunera iritsi zen.



Krema igurtzi ezean, bat baino gehiago erre zen igandean.



Hamabiak iritsi bitarte, hamaiketakoa.

Aiurriko erredakzio batzordeko ki-deen lanaren osagarri, aiurrizale talde bat argazkiak eta bideoak igortzen aritu zen igande osoan zehar. Teknologia berriak erabiliz, aiurrizaleek bidalitako argazkiak berehala ikus eta partekatu zitezkeen sare sozial ezagunetan. Aiurriekin bat egin zuten urnietar eta andoaindar horien argazkiekin lehen argazki-bilduma sareratu genuen Flickr gunean, eguerdiko 13:00ak baino lehen. Herritarrak eta tokiko hedabideak elkarrekin lanean, informazioa denbora errealean zabaldu zen. Eskerrik asko Aiurriekin bat egin zuten guztiei.



Argazki guztietan jendea alai agertzen da.

ASTEURU HONETARAKO BI HITZORDU NAGUSIAK ANDOAINEN

Garagardoa eta rock musika

San Juan jaien atarikoak izango da, iaz bezala, Gazteleku pilota eskolak eta Ontzerrik antolatu duten Garagardo Azoka. Ostegunetik igandera, nazioarteko garagardo eskaintza oparora dastatu ahal izango da.

Larunbat gauean, gainera, garagardoak osagarri bikaina izango du: rock musika. Andoaingo rock jaialdiaren edizio berria ospatuko da, andoaindarren artean geroz eta interes handiagoa pizten duena.



Euskal Herriko eta nazioarteko taldeak ikusteko aukera izango da larunbatean.



Garagardo azokatan ohikoa den menuaz gozatzeko aukera izango da Andoaingoan ere.

Pilota partidak

Azokak irauten duen egunean pilota partidak jokatuko dira Arrate pilotalekuan.

Iturzaeta Memoriala

Finalerdiak
Ekainak 13, ostirala. 21:00.

Jon Eskudero-Labaka

Gipuzkoako 4 1/2, finalerdia
Ekainak 14, larunbata. 17:30.

Aritz Eskudero-Oinazpi

Buruntzaldea 4 1/2, finalerdia
Ekainak 15, igandea. 17:30.

Larunbat honetan –ekainak 14– arratsaldeko 18:00etatik aurrera Andoaingo rock jaialdiaren zazpigarren edizioa burutuko da Nafarroa plazan. Rock jaialdiaren zazpigarrenarekin batera, Garagardo Azokaren bigarrena ospatuko da. Biak ala biak jarduerak osagarriak. Iaz, kanpotik etorritako rockzale askok ez zuten azokaren berri izan. Ea aurten bi jarduerak elkar osatzen diren. Andoaindar askok eskaintza bikoitzaz gozatu ahal izan zuen, eta aurten errepikatzen asmoa izango dute.

Garai bateko nazioarteko taldeak ekartzeko ohitura dute antolatzaileek. Bat baino gehiago aitona-amon izateko adinean izango da. Talde gazteagoak ere ikus daitezke eta, aurten, denen gainetik Kaliforniako Bellrays taldea aipatu behar da. Azken urteetan Bilboko Kafe Antzokia bezalako aretoetan jendetza erakarri dute, haien zuzeneko ikusgarria baita.

Hori pagotxa hori, rocka maite dutenentzat! Dohainik, gainera. Jaialdian parte hartuko duten sei taldeak horrela definitu dituzte antolatzaileek:

The Bellrays Kalifornia, AEB

“Lisa Kekaula eta abarrek denda batera sartu eta aurkitu nahiko zenukeen diskoa egin dute, eta kontzertu batean entzun nahiko zenukeena. *Let It Blast* (98) edo beraien aurreko lana den *Hard Sweet And Sticky* bezalako lanekin ezagu-

tu zutenen bihotzean kokaturik, oraingoan gure instinto baxuenengana jo dute, urdaila eta hankartea golpatuz: nahastezin bihurtzen dituen soul musika galdu gabe, hamar ereserki erditu dituzte”.

The Woggles Georgia, AEB

“Dauden garage banda zaharren artean, aktiboan jarraitzen duen laukotea da. Ohol-tza gainean apustu zurrta da”.

The Ape Australia

“Beasts of Bourbon talde eza-gunean kantari aritutakoa da, Tex Perkins The Ape taldeko arima”.

Kid Congo and The Pink Monkey Birds AEB

“Zuzeneko ikusgarria duen taldea, dantzaz beteriko festa handi baterako”.

The Lookers Ziburuko, Lapurdi

“Ziburuko hirukote gaztea garage-punk-rock giroko azken sentazioa da”. The Sonics, New York Dolls edo Pixies bezalako taldeen jarraitzaileak.

Bakelite Euskal Herria

“Sergio Llanos (Atom Rumba) eta Naiara Anasagasti (Panniks) bikoteak sortutako proiektua da. Naiara kantariak batera eta gitarra jotzen ditu txandaka. Sergiok gitarra jotzen du eta ahotsetan laguntzen dio”.

ANDOAINGO II GARAGARDO AZOKA



EKAINAK 12-13-14-15 ARRATE FRONTOIEAN







Osteguna 12: 18:00 Azoka Irikiera
20:00 - Garagardo kata Erik Coen-ekin Sarrerak(15€) Olajauna, Lanbroa, Irunberri eta Txuri beltz

Ostirala 13: 18:00 Azoka Irikiera

Larunbata 14: 18:00 Azoka Irikiera
18:30 - Zesta punta KINIELAK

Igandea 15: 18:00 Azoka Irikiera
19:00 - Gaztetxeko pilota partiduak

ALDATUZ JOANGO DIREN GARAGARDOAK:









Antolatzaileak:



Babesleak:

ZAPIAIN
DISTRIBUCION, S.L.

Aiurri



Joxe Barberena omendu zuten Kirol Astean

[LEHEN ORRIALDETIK DATOR]

Oso hunkituta agertu zen Barberenari ekitaldia hasi zen une bereetik eta oroigarria jasotzera oholtzara igo zenean, ez zuen gehiagi luzatu bere mintzaldia: “oso zail utzi didazue, dena esana geratu baita. Egia esan, hunkituta nago, edozeini oilo ipurdia jartzeko moduko hitzak entzun baititugu hemen”.

Berezkoa duen umorea ere erantsi nahi izan zuen bere mintzaldian, emozioa gainditu nahian: “Eskaini diren bideo horietan, naizena baino guapoagoa ikusi dut nire burua! Mutil garaia eta begi urdin!”. Azkenik, eskerrak eman nahi izan zizkien bertaratu ziren guztiei: Benetan eskertuta nago zuekin, hona etorri zaretelako. Besteak beste, jende artean ikusten ditut Abraham Olano eta baita Asier Etxezarreta, azken hau Amerikatik ia-ia igeri eginez etorri dena ekitaldira! Mila esker guztiei, herriko kirol taldeetako ordezkariak eta kirol patronatuari, eta batez ere zuei, txirrindulari taldeko kideei, urtetan ederki aguantatu nauzue eta!”.

KIROL ERAGILEEN AITORTZA

Igor Lizasoain, Gazteleku pilota eskola

“Bere nortasunetik ume eta gazteekin ibiltzeko duen abiltzia berezia azpimarratuko nuke. Giza harremanetarako alaitasuna eta giro ona jartzen dakien pertsona da. Iaioa da jendea proiektu batera erakartzeko lanetan, eta gainera, ilusioa pizten duen horietakoa da”.

Gurutz Letamendi

Leizaran eskubaloiko taldea

“Joxe gizon txikia da neurritz, baina piperraren antzera saltsa guztietan dagoen pertsona da. Zertan ez ote duen parte hartzen: Inauterietan, kirol ekitaldietan, auzo edo herriko jaientan... Autentikoa da!”.

Aitor Amutxastegi

Txirrindularitza eskola

“Gizon sortzailea izan da beti Joxe. Saltsera da izatez, eta, printzipioz, ez daki ezetz esaten. Zerbait eskatzera dator kion horri erantzuteko prest



Joxe Barberena Andoingo Txirrindulari Eskolako belaunaldi ezberdinak alboan zituela, emaztea ondoan zuela.



Joxe Barberenak hunkituta hitza hartu zuen.



Joxe Barberena eta Ana Carrere alkatea.

dago beti, herriko ekimenetan parte hartzeko, herriko elkarte ezberdinei laguntzeko. Ando-

ingo Txirrindulari Eskolak akaso funtzionatuko luke Joxerik gabe, baina ziur izan ez li-

“Mila esker guztiei, herriko kirol taldeetako ordezkariak eta kirol patronatuari, eta batez ere zuei, txirrindulari taldeko kideei”

- **Pako Arnaiz.** Martxako modalitatean eta 70 urtetik gorakoen kategorian, pista estaliko txapelduna 3.000 metrotan eta Euskadiko txapelduna 5.000 metrotan.
- **Nagore Arizaga.** Bere Bera eskubaloiko taldearekin, bi urte jarraian Espainiako Liga, Superkopa eta Erreginaren kopak irabazlea.
- **Jokin Alberdi.** Kadete ziklo kros Gipuzkoa, Euskadi eta Espainiako federazietako kopak irabazlea. Parte hartutako lasterketa guztiak irabazi ditu.
- **Asier Arregi.** Mendi bizikletako Gipuzkoako txapelduna.
- **Olatz Odriozola.** Mendi bizikletako Gipuzkoako txapelduna.
- **Amador Granados.** Txirrindularitza egokitua. Espainia mailan, bi urrezko domina pistan eta txapelketa errepi-dean. Mexikon jokaturako mundu mailako pistako txirrindularitza egokituan, urrezko domina.
- **Leizaran eskubaloiko** kadete mailako mutilak eta neskak Gipuzkoako Foru Aldundiko torneoko txapeldunak.
- **Txirrindulari eskolako** kadete eta jubencil mailako taldeak Gipuzkoako txapeldun erlojuaren aurkako txapelketan.

tzatekeela horren kohesionatuta egongo. Bera guztion artzaina dela esan ohi da, eta egia da.

Andoingo eskolan jartzen du bihotza eta burua, eta horrela ezagutzen du jendeak batez ere herrian. Gogoratu behar da lan izugarria egindakoa dela herrikan kanpo ere. Gipuzkoako eta kanpoko txirrindularitzaren munduan oso estimatua da, bere iritzia oso konstantean hartzen dute”.

AIPAMEN BEREZI GEHIAGO

Denboraldian zehar lortutako emaitzagarriak, ekitaldian bereziki aipatu ziren zenbait modalitateko kirolari eta taldeak:

Andoingo areto futbol txapelketa

Finalurrekoak

Arrate.

A Multzoa

Keler 1-0 Galpasitx

Aure Maiton 5-3 Centro Extremeño

B Multzoa

Hogar Extremeño 9-4 Leiza 77

Ekaitz 7-5 Medallo 21

Multzoko finalak

Allurralde.

Partida berdinetarekin amaituz gero, irabazlea penaltietara erabakiko da.

Ekainak 15, igandea:

3-4. postuak, B multzoa

Medallo 21-Leiza 77

09:15. Igandea, 15.

3-4. postuak, A multzoa

Centro Extremeño-Galpasitx

10:15. Igandea, 15.

Finala, B multzoa

Ekaitz-Hogar Extremeño

11:15. Igandea, 15.

Finala, A multzoa

Keler-Aure Maiton

12:15. Igandea, 15.



KIROL ALBISTEAK

Kirola eta joko garbia hizpide

Kirola eta jator jokatzea ardatz hartuta, mahai-ingurua antolatu zuten, Andoingo Kirol Astearen baitan. Lehen zatian, eliteko kirolariek protagonismoa hartu zuten: **Jon Gaztañaga** (Real Sociedad), **Nagore Arizaga** (Bera Bera), **Imanol Rojo** (eskiazaile olinpikoa) eta **Miguel Angel Perez Lasa** (lehen mailako epaile ohia).

Gazte-gaztetatik izan duten ibilbidea eta etorkizunera begirako ilusioak izan zituzten hizpide. Gaztañagak pilota eta futbola zituen gogoko, baina bigarrenari eutsi zion gogor. Realeko gazte mailetan jokatzen hasi zen agudo, eta 17 urte azpiko Europako txapeldun bihurtu zen Espainiako selekzioarekin. 23 urte beteko ditu eta oraintsu jakin du hurrengo denboraldia Realekin jokatuko duela.

Nagore Arizaga Leizaran eskubaloiko harrobian hezi zen eta Bere Berak fitxatu zuen ondoren. Azken bi urteetan Espainiako ohorezko mailako Liga, Superkopa eta Erreginaren kopa irabazi ditu.

Andoainen ikasle izan zen Imanol Rojo tolosarra txikitik hasi zen eskiatzen Aralarren, eta geroztik Espainiako txapelduna da iraupen luzeko eskian. Xochiko 2014ko neguko olinpiadetan parte hartu zuen. Laugarren hizlaria Perez Lasa izan zen, azkenik, iaz erretiratu zen epaile lanetatik. 1996-1997 denboraldian igo zen lehen mailara, eta geroztik 300 partida egin ditu.

"JOKATU JATOR KIROLEAN"

Horixe zen solasaldirako jarri zen gaia, eta horren inguruan jardun zuten lau kirolariek, eu-



Nagore Arizaga, Jon Gaztañaga, Imanol Rojo, Ixiar Olano, Ainara Rodriguez, Ainhoa Aiertza, Miguel Angel Perez Lasa eta David Urtasun.

ren iritzi eta esperientziak kontatuz. Saioaren bigarren zatian, ostera, Andoingo hiru kirol arduradunek ere parte hartu zuten; **Gurutz Letamendi** (Leizaran eskubaloiko taldea), **Gorka Otaegi** (Euskalduna futbol taldea) eta **David Urtasun** (La Salle-Berrozpe ikastetxeko Eskola Kirolako arduraduna). Hirurek ere gauza bera nabarmendu nahi izan zuten; alegia, nor bere esparruan, zenbait balore sustatzen saiatzen direla, kirola eginez, ondo pasatzeaz gain. Balore horiek hezkuntzarekin daukate zerikusia, hain zuzen. Lehiakortasunaren gainera, gizalegea eta errespetua beti nagusitu behar direla uste dute hirurek ere.

Helburu horiek garatzeko orduan, partidatar agertzen diren ikusleen, eta batez ere zenbait gurasoen aldetik maiz sumatzen den jarrera zabarra nabarmendu zen, eta adierazpen kritiko ugari entzun ahal izan zen parte hartzaileen ahotik.

Besteak beste, zenbait guraso itsutu egiten direla umeen partidak ikusten ari direnean. Kirol hori futbola denean, batik bat. Nonbait, euren seme-alaba onena dela iruditzen zaie, eta aurkari eta epaileari edozer astakeria esateko eskubidearekin sentitzen dira: "Futbolaz denok dena dakigula iruditzen zaigu, baina hori ez da egia. Nik urteak daramatzat entrenatzen, ikastaroak jasotzen..., eta egunero ari naiz ikasten", zehaztu nahi izan zuen Gorka Otaegi entrenatzaileak.

2013ra arte futboleko lehen mailako epaile izan den heinean, badu zer kontatua Perez Lasak, eta besteak beste, bigarren erregional mailako entrenatzaile batekin behin edukitako hizketa aipatu zuen: "Gipuzkoan epaileak zergatik diren hain txarrak galdetu zidan. Nik erantzun nion maila bakoitzean jakintza bereko entrenatzaile, jokalaria eta epaileak biltzen zirela. Le-

hen mailan oso onak direla denak, baina bigarren erregionalean epaileak entrenatzaileen parekoak izaten direla...".

Gurutz Letamendik, saskibaloiko entrenatzaile gisa eskuratu duen eskarmentua kontuan hartuta, zera adierazi zuen: "nahiko jakina da gauza: haur batek, entrenamenduetan nolako jokabidea erakutsi, halakoa da etxean jaso duen hezkuntza".

Hizlari guztiek, ikuspegi kritiko horretan sakonduz, aitortu zuten nekeza dela lehia eta garaipena lehenesten den gizarte batean hezi legezko baloreak sustatzea.

Perez Lasak futboleko elitean dabilzan eragileei ere zuzendu zizkien kritikak: "urtetan epaileak frogatu ahal izan dugu jokalariek joko zelaian erakusten dituzten jokabide itsusi horiek (antzerkia area barruan, ukabilkadak, atzetik sarrera gogorak...) umeek gero imitatu egiten dituztela".

Iradi, Altuna eta Zabala txapelaren bila

Iturzaeta memoriala, IV. edizioa

Finalurrekoak. Arrate.

Ekainak 13, ostirala. 21:00

Nabarmentzeko moduko lorpena Andoingo pala jokalariera. Finalurrekoetan lautik hiru herrikoak izango dira: Iradi, Altuna eta Zabala. Final laurdenak lehia bizian igaro ziren aurreko asteburuan.

Finalurrekoak:

Vega-Leiba / Iradi-Garate

Altuna-Txiki / Arozena-Zabala.

Final laurdenak:

Arozena-Zabala 40

Plano-Bagazgoitia 21

Fernandez-Nicuesa 39

Iradi-Garate 40

Vega-Leiba 40

Lakalle-Andonegi 30

Odriozolaren aukera

Zaramaga 40-13 Urnieta

Euskal Herriko trinkete txapelketa

Julen Loitegi. Ezinezkoa zaio bere maila erakustea, bi eskuak bikirituta dituelako. Zaintzen bada ere, ez da behar bezala osatzen ari. Gauzak horrela, garaipena lortzea ezinezkoa zaio. Atsedean hartzea dagokio.

Urnieta 22-11 Hernani

Ekialde txapelketa, 4 1/2

Imanol Odriozola. Geroz eta errazago jokatzen du kirol jarduera horretan. Aurkari ona garaitu zuen eta finalurrekoetara sailkatu da.

Urnieta-Hondarribia

Ekainak 15, igandea.

10:00. Urnieta.

Urnietako alebin neskek Gipuzkoako txapeldunak

UKE eskubaloia. Urnieta

"Garaipen berri bat Urnietako eskubaloientzat. Aurreko asteburuan herriko alebin nesken taldea garaile izan zen Bidebietako kiroldegian jokatutako amaiera fasean.

Larunbatean Elgoibarri irabazi zioten partida zirrargarri bat jokatu ostean. Hain zuzen, partida azken segunduan erabaki zen, Malen Morandeira urnietarrak zuzeneko falta jaurtiketa bat gol bilakatu ostean. Gol erabakigarri horrekin, urnietarrak igandeko final handira-

ko txartela eskuratu zuten. Finalean Zumaiaen aurka jokatu zuten, eskubaloiko tradizio handiko beste herri bat. Urnietarrak oso kontzentratuta ekin zioten partidari, ez baitzuten errepikatu nahi finalerdietako lehenengo zati txarra eta erasoan erritmo handiz jokatzeaz gain, defentsan lan bikaina egin zuten, Zumaia jokalariek aurki zitzaizketen hutsuneak itxiz. Atsedendian urnietarrak sei goleko abantaila zuten eta horri esker bigarren zatia lasaitasun handiagoarekin jokatu ahal izan zuten. Nahiz eta zumaiairek eginahalak egin, urnie-

tarrek markagailuan alde zuten abantailak eta Hirune Moreda atezainaren zenbait geldiketa bikainek garaipena berretsi zuten, Gipuzkoako txapeldun bilakatu.

Talde bikaina osatzen dute Hirune Moreda, Malen Morandeira, Nerea Salaberria, Laura Campos, Angela Arias, Maria Goikoetxea, Amaia Mellado, Maria Fierro, Jone Etxeberria eta Lucia Frutos jokalariek eta Kevin de Castro eta Xabat Salaberria entrenatzaileek. Talde honek herriko eskubaloiko harrobia indartsu dagoela berretsi du". Zorionak!



